

Arrasate

P R E S S

1999ko
Maiatzak 28
453. zenb.



Zuk bezala sentitzen dut

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KIROL ELKARRIZKETA: CESAR DIEZ
EUREN IKUSPUNTUTIK: JOSU BENAITO • KULTURA GAIA: KOMIKI EZ SEXISTAK

zabaldu begiak



**INSTITUTO
OPTICO**

Erdiko kale, 22 - Tel.: 943 79 71 68

Hiper Eroski - Tel.: 943 79 78 26

ARRASATE

Andra Mari, 8 - Tel.: 94 620 29 86

Grupo San Ignacio - Tel.: 94 681 84 92

DURANGO

Erdiko kale, 21 - Tel.: 943 60 31 54

MUTRIKU

Alderdien ordua

Francok hil aurretik bananbilen politika antolatuan. Ilunpetako politikan, noski. Baina antolaketak politikan esan nahi duen guztiarekin: militantzia, kuota, diziplina eta beste taldeak baino hobeak ginela sentiarazten zigun setakeria puntua.

Trantsizioaren zurrunbiloa barru-barrutik bizi izan nuen. Hasieran ilusioz beterik, libertadeak irabazi ahala, askatasuna lortzen ari ginelako. Gero epelago, libertade gehiagoren orde, mugak etorri zirenean. Hasierako batasuna apurtuz joan zen, estrategia kontrajarriak agertu ziren eta alderdiak —nirea barne— setatiago bihurtu ziren.

1980an etsipenak jota nengoen. Diktadurako sator-zuloan irudikatzen



Mikel Irizar

nuen euskal gizarteak apenas zuen eguzkipean ikusten nuenaren antzik. Ez zen nik nahi bezain eskuzabala, euskalduna, inkonformista eta aurrerakoa. Alderdien jarduna, oro har, egoera aldatzera baino zuzenduago zegoen beren barne egiturak finkatzera. Aparato indartsuak eta diruak ematen zuten indarra, bata nahiz bestea lortzeko bideak beti gardenak ez baziren ere. Eta alde egin nuen politika egituratutik, uko egin nien militantzia, kuota, diziplina eta setakeriari.

Eta hor ibili naiz geroztik, beti ere politika hurbiletik jarraituz, baina alderdietatik aldentuta. Sarri murgildu naiz epe luzeko herrigintzan eta tarteka barnegintzan ere bai. Politikari buruzko nire iritzia neuk sortu behar izan ditut, hantzen hementa jasotako

osagaiekin. Eta alderdi guztien keriak eta miseriak ikusteko libre izan naizela, denen tartean egoteko gai izan naiz, beti ere zubi lana egiteko prest.

Politikan libre jokatzeko ohitu naiz, eta ez dut uste berriro militantziaren morrontzak onartuko ditudanik. Baina oraingo honetan zerrenda baten alde agertzea erabaki dut. Zergatik?

Urte luzez lan politiko handia egin da/dugu alderdietatik aparte. Urrun barik, Lizarrako akordiorako baldintzak eta giroa neurri handi batean giza mugimenduek sortu dituzte. Baina oraingo hau alderdien ordua da. Beraiei dagokie bakea ekarriko duen ituna lortzea, sinatzea eta gauzatzea. Eta komeni da alderdiak berrindartzea, ahalik eta ondoen ordezkariak deitzen gizartea. Lortu beharreko itun hori zehazterakoan, alderdi bakoitzak bere benetako pisua azal dezan. Eta aldi berean, ordezkariak kokotean senti dezaten ordezkariaren hantsa, atzera gabe aurrera bultzatuz.

Ia hogeitaz aparte ibili eta gero, alderdiengana hurbiltzeko ordua etorri dela uste dut.

**“Beraiei dagokie
bakea ekarriko duen
ituna lortzea, sinatzea
eta gauzatzea”**

“Deba Garaiak bi erronka ditu: Maltzagatik Gatzagara doan burdinbide zaharra bidegorri moduan prestatzea eta gure herrietan oinez eta bizikletaz ibiltzeko bideak egitea”

Josu Benaito

51

**bazkide ditu Atzegik
Arrasaten**

Atzegik, Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten Pertsonen Elkarteak, 51 bazkide ditu Arrasaten. Deba Garaian, Aramaio barne, 144 bazkide ditu. Laster etxe berria egingo du Aretxabaletan, bailara-ko eta kanpoko gaixoak elkarrekin bizi daitezen.

B A Z E N E K I E N ?

Iñaki Etxaberen hilketa

Goizean, Arantzazutik bueltan zetozela, Arrasateko koarteleko hiruzpalau goardia zibil hil zituen ETak. Gauean, mendeku itxura zuen ekintza batean, Iñaki Etxabe hil zuten Kanpazarko tabernan. Pedro Basterretxea eta Jose Antonio Altuna, alkatea eta zinegotzia hurrenez hurren, autoa hartu eta Kanpazarrera joan ziren.

Iñaki lurrean aurkitu zuten, hilda eta odoletan. Alboan Gregorio anaia eta Jose Luis Iñarra parrokoa, azken hau aulki batean eserita. Bolbora usaina bazterretan.

Hizketan ari zirela, goardia zibil talde bat sartu zen, metrailetak eskuetan. Buru egiten zuenak esan omen zuen: “Kaka zaharra, aurreratu egin zaizkigu!”. Elorriko koartelekoak ziren eta taberna babesteko agindua omen zekarten. Arrasatekoak, ustez, aurreratu egin zitzaizkien.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 71 23 90). **Disainua:** Maddi Trubuezarain (Tel.: 943 71 23 90). **Disainua:** Maddi Trubuezarain. **Asteburuetako berriemakia:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa ardura:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Manjo Deogracias eta Maddi Trubuezarain.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 28**
 • Gaeuz eta egunez: Korquera, Musakola
- Larunbata, 29**
 • Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin
- Igandea, 30**
 • Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Astelehena 1**
 • Gaeuz eta egunez: Maala, Ruiz
- Asteartea, 2**
 • Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres
- Asteazkena, 3**
 • Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 4**
 • Gaeuz eta egunez: Español, Iturriots

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igalatorria 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko/medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanzak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Onati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

NEGUTEGI EFEKTUA

Lurreko bizitza atmosferari esker da posible. Atmosferaren osagaiak nitrogenoa %78, oxigenoa %20,9, argona %0,93, karbono dioxidoa %0,03 eta beste %0,000013 ozonoa, sufre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa, oxido nitrikoak eta karbono monoxidoa die.

Karbono dioxidoak atmosferaren bolumenaren %0,03 osatzen dau. Orain mende bateko 280 ppm-ko kontzentrazio batetik, 340 ppm-ko batera iritsi da gaur egun. Gehikuntza honek ez dau eka- rri atmosferarekiko CO₂ por- tzenaiaren aldaketa estima- garririk. CO₂en gehikuntza atmosferan bi arrazoi nagusiengatik ematen da:

1. Erregai fosilen gehikuntza (gasa, ikatza eta petro- lioa).
2. Baso mozketak ete sute- en eraginez, zuhaitzek CO₂ gutxiao erabilzen daue.

CO₂en igoerak negutegi efektua sortzen dau. Zenbat eta CO₂ gehiago, lurra gehixau berotuko da. Erritmo honekin jarraituz, 2060. urterako CO₂en kontzentrazioa bikoiztu egin- go ei da. Honen ondorioz, Lurraren tenperatura bi eta lau gradu tartean berotuko da. Berotze honen eraginez, polo- etako izotz asko urtuko litzate- ke eta Europak eta Iparrameri- kak lehorreak jasango litzukie.

Estatu Espainiarrean, adi- bidez, urtero 300 milioi tona CO₂ sortzen diez. Honek biz- tanle bakoitzak 6,6 tona urte- ko sortzen dituela esan gura

dau. Europako batzbestekoa 7,3 tona bihurtzen da. Indust- rian, garraioan eta etxeetan %78 sortzen dou. Baso moz- ketaren ete erreketen eraginez, beste %22. Sostengarritasuna bideratu nahi bada, 2000. urte- rako isurketen %20 jeistea beharrezkoa zala jakinarazi zan Rio de Janeiron eginda- ko bileran.

Gaur egun planetako populazioaren %20k ia isur- keta guztia sortzen dou, ale- gia, herrialde industrializa- tuok. Bestalde, isurketak Lurreko biztanle guztien arte- an banatu ezker, pertsona bakoitzeko 1,7 tonako batz- bestekoa emoten dau. Isurke- ten banaketa "solidario" bat egin ezker, "aurreratuok" gure isurketen %75 jeitsi beharko geunke.

Isurketak zazpi aldiz gehi- tuz, bizitza Lurrean ezinezkoa litzateke. Beraz, planetako biztanle guztiak "aurreratuon" batzbestekora heltzen dire- nien gizakia desagertzeko arriskuan egongo da.

Kutsadura honek landa- retzari kalteak eragiteaz gain, gizakiari begi, odol eta arnas- ketaren iritazioak eta minbi- zia sortzen dutzo. Materia- lak ere hondatzen ditu: pape- rak, margoak eta metalak.

Norberaren kontsumoa aztertzea proposatzen dou. Hone- la, etxeko kontsumoa, zaborra eta garraioaren erabilerak neur- tuaz, sortzen dou kutsaduraren ideia bat izango dou.

*Xabi Tramon
 Maltzaga-Urbina
 Autopistaren Aurkako
 Asanblada*

ERRUGBILARIAK POZIK

Jadanik iritsi gara helmu- gara. 98-99 denboraldia bukatu da. Kronika txiki bat egitera behartu naute, Arra- sate Errugbi taldearen izene- an. Denboraldia urrian hasi genuen, Euskal Ligaren barruan. Taldekide nahiko ginen ekipo bat sortzeko, bai- na arazo asko izan genituen: zauriak, entrenatzeko gogo gutxi... Denboraldia aurrera zihoan neurrian, gure garaie- nak pilatzen joan ziren, "play off"etara iritsi arte. Hiruga- rren sailkatzeko aukera izan arren, Euskadiko hirugarren ekipo onena, ez ginen tal- dekide nahiko agertu eta, beraz, esku hutsik gelditu ginen.

Ondoren Gipuzkoako Liga hasi genuen eta Elorriok gure- kin jokatzeko eskatu zuen. Ondorioz, liga polita burutu eta hirugarren gelditu ginen. Ibilbide zail horretan lagun asko egin ditugu eta urte oso- an ikasi dugun guztia gure barruan geldituko da.

Ezjakin batzuen ustetan, errugbia astakiloen joko da, baina niri mundu berri bat ezagutzeko aukera eman dit, inoiz ezagutu dudan joko noble eta ederrena da eta.

Horrez gain, jokatzeko eta entrenatzeko zelaia lotsagarria dela esan nahi dut. Udalari berehala konpontzeko eskatu nahi diot.

Besterik gabe, hurrengo urtean gure artean egongo zarela espero dut. Besarkada bat.

*Oxel Etxeberria,
 Haur mailako Arrasate
 Errugbi taldeko kapitaina.*

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
 jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M
MEMESA
 Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



ERNE GAZTE,
HEZIBIDEREN

ALDEKO
APOSTUA

ERRENTA
SEGURUA



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

**ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA
ETA**

ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera plural bezain osagarri
honako ikasketak egiteko

**1 BATXILERGO
AUKERA GUZTIAK**

- NATURA ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak ingeniartzarako konbalidatuta.

**2 UNIBERTSITATE
IKASKETAK**

UNIBERTSITATEKO IKASKETA
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIDA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIDA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

**3 ETA
LANBIDE HEZIKETA**

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOALKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIDA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

Harremanetarako
pertsonak



ALMEN
IKASTOLA

Josebe
Murumendiaraz 943 71 49 07

ARRASATEKO
IKASTOLA

San F. Xabier Margari
Gorrotxategi 943 79 64 79

San Viator Idoia Urrutia 943 71 24 90



USTEAK USTE

35 orduko lanastea dekretuz?

Joan den ostiraleko lanuzteak 35 orduko lanastea lortzeko egin zen neurri handi batean.

Sindikatuak dekretuz lortu nahi dute 35 orduko lanastea. Horren arabera, enpresa guztiak behartuta leudeke ordutegi hori jartzera. Asino horrek, baina, hainbat eragozpen ditu.

Euskal Herriko enpresa askok eta askok ezingo lukete neurri hori indarrean ezarri, ateak itxi egin beharko lituzkete eta. Autonomo gisa lan egiten dutenek ere, gero eta jende gehiago, ezingo lukete formula horren arabera lanik egin, kasurik gehienetan negozioa aurrera ateratzeko ordu askoz ere gehiago sartzen dituzte eta. Edozein enpresatan ardurak dituen jende mordoak, bestalde, ezingo luke bere lana ordu horien arabera egin.

35 orduko lanastea ona izan liteke, baldin eta zenbait baldintza betetzen badira, baina inola ere ez dekretuz. Enpresaz enpresa egin litezke saioak, oztopoak zeintzuk diren ikusiz eta bidea garbituz.

Joxe Aranzabal



Bidegorriak

* Josu Benaito

Maiatzaren 20an eta 21ean, Donostiako Kalapie eta Arrasateko Lurrats elkarteek antolatuturik, Bizikletentzako Azpiegiturei eta Bidegorriei buruzko I. Jardunaldiak izan ziren Arrasaten. Austria, Katalunia, Valentzia, Espainia eta Euskal Herriko etorritako 17 adituren hitzaldiak entzuteko aukera izan zuten jardunaldiotan parte hartu zuten 130 lagunek. Entzuleetan Euskal Herrikoak izan ziren nagusi. Baina baziren banaka batzuk Kataluniatik eta Kanariar Uharteetatik etorritakoak.

Gure inguru hurbilean zein Europako beste herrialde batzuetan bizikletaren erabilera sustatzeko garatzen ari diren ekimenen berri jakitea zen jardunaldion helburua. Eta, era berean, gai horrekin zer ikusirik duten eragile ekonomikoei, gizarte eragileei eta herri erakundeek ekimen horien berri ematea. Beti ere, horren eraginez Euskal Herriko herri erakundeek eta Gipuzkoakoek, bereziki,

apurka-apurka bizikletaren erabilera sustatu eta haientzako azpiegiturak sortuko dituztelakoan.

Euskal Herriko eta Europako herri erakunde ugari aitortu dituzte bizikleta erabiltzearen alderdi onak.

Hala ere, hirietan joan-etorrien %1 baino ez da bizikletaz egiten Espainian. Izan ere, bizikletaz ibiltzea arriskutsua da. Bizikletak motordun ibilgailuekin batera ibili behar izatea da arrisku horren eragile nagusia. Horretaz, bada, egoera arriskutsuetan ibili beharrak atzera eragiten dio jende askori. Bizikletentzat propio egindako bideak, segurtasun han-

diko azpiegiturak dira eta beste egoera batean bizikleta erabiliko ez lukeen jende asko erakartzen dute

Europako herrialde gehienetan errealtate bat dira bizikletentzako bide sareak. Holandako Bidegorrien Sareak 18.000 km. ditu, guztira. Finlandian bidegorriek 10.000 km.ko sarea osatzen dute. Suedian, berriz, 6.300 km.ko bidegorriak daude. Erresuma Batuko bidegorrien sareak laster 6.000 km. izango ditu. Datu horiek guztiok argi eta garbi adierazten dute zer nolako garrantzia ematen zaien herrialde horietan bizikletaren erabilera zuzpertzeko azpiegiturei.

Araba eta Bizkaiko diputazioek badute bizikletaren erabilera sustatzeko planik, zein baino zein egokiagoa. Gipuzkoako Diputazioak, ordea, ez du inolako planik. Are gehiago, ematen duenez, ez du asmorik erdi epera horrelako planik egiteko. Eta hori kezagarria da.

Deba Garaia bi erronka ditu: Maltzagatik Gatzagara doan burdinbide zaharra bidegorri moduan prestatzea eta gure herrietan oinez eta bizikletaz ibiltzeko bideak egitea. Orain Gipuzkoako Diputazioaren eta Deba Garaiko udalen txanda da, euren esku baitago bi eginkizun horiek bideratzea.

* Kalapie taldeko kidea

Gipuzkoako Diputazioaren eta Deba Garaiko udalen txanda da orain



Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar

MATERIALEEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

HIES EKIMENA Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara. Tel.: 943 79 26 99

Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?

Ekainaren 13an bertan jakingo da nor izango den hurrengo alkatea.



Iñaki Mendizabal
(45 urte)
Langilea

Zintzoa izatea eskatuko nioke. Osterantzean, garbitasuna zain dezala.



Vicente Eriz
(67 urte)
Erretiratua

Bakea eta herria ondo zain ditzala. Lan zehatzen gainean, irtetzen denak jakingo du zer egin.



Leo Ziargedi
(85 urte)
Erretiratua

Zigorralarako pasabideak oso txarrak dira helduentzako eta horietxek konpontzeko.



Luis Badiola
(59 urte)
Erretiratua

Portugaldarrentzako etxebizitza bat aurki dezala.



Milagros Beitia
(51 urte)
Etxekoandrea

Ez dakit. Zigorrolan, esaterako, berdegune asko daude, baina aparkalekuak ez dira nahikoak.



Maria Jesus Monje
(43 urte)
Langilea

Egin dezakeen guztia egin dezala eta herriari dagokionez, orain arte bezala segi dezala. Irekia izatea.



Anabel Martinez
(40 urte)
Langilea

Ez dakit, aparkalekuak, agian.



Angel Moraleja
(32 urte)
Langilea

Gutxienez Xabier Zubizarretak egin zuena egin dezala, bera izan da eta, herriak izan duen alkaterik onena.

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Sagardotegia

ITURRIETA

Astelehenetik
asteazkenera enkarguz
Ostegunetik igandera
zabalik

MENU ESKAINTZARIK
ZABALENA AUKERAN

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

28

ostirala

■ ZINEA

Soldado de fortuna, Alai zineman, arratsaldeko 22:00etan.

■ PIANO KONTZERTUA

Arrasate Musikalek piano kontzertua antolatu du. Emanaldia Arrasate Musikaleko areto nagusian izango da, arratsaldeko 19:00etan.

■ CORAZON DE ENCINA

IX Kultura astearen barruan, 19:30ean Anastasio Cruces (Euskal Herriko elkarte extremeñoen federakunde-ko lehendakariak) hitzaldia eskainiko du: "Elkarte extremeñoak: oraina eta etorkizuna". 21:00etan saheski jana egingo da eta 23:00etan Coros y danzas taldeak "La Alborea, rondas de bodas" lana eskainiko du.

■ KONTZERTUA
JAM ARETOAN

Oximoron musika taldea arituko da Bergarako Jam aretoan. Jadanik klasiko bihurtu den Nurenbergeko talde honek, *Malestar* taldea izango du lagun. Kontzertua 22:00etan hasiko da. Sarrera, 1.200 pta.

29

larunbata

■ ZINEA

Aún se lo que hicisteis el último verano, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ ABESBATZEN
TOPAKETA

Arrasate Ikastolak antolatuta, Deba Garaiko Eskola Arteko Abesbatzen XII Topaketa egingo da Amaia antzokian. Goizeko 11:30ean eta 17:00etan izango dira saioak.

■ ALMENEKO
I KIROL JAIA

Kirol denboraldiari amaiera emateko antolatu duten jaieren barruan, 10:00etatik 12:30era, globoa, bolatokia, futboleko jaurtiketak, hiruko saskiratze lehiaketa, gaztelu puzgarriak eta bestelako ekitaldi ugari egingo dira, aisialdi eta kirolarekin loturik. Almeneko federatuei sariak banatuko zaizkie.

■ CORAZON DE ENCINA

Kultura astearekin segituz, 12:00etan play-back lehiaketa eta 13:00etan lehendakariaren agurra. 17:30etik aurrera jaialdi folklorikoa Arrasateko, Bergarako eta Andoaingo taldeekin, besteak bes-

te. 21:30ean herri afaria bazkide eta elkarte laguntzat. 24:00etan Pearl Sound taldearekin dantzaldia.

■ ELKARTASUN EGUNA

Hirugarren Munduarekiko I Elkartasun Eguna egingo da Arrasateko Garapenerako Gobernu Kanpoko erakundeek eraturik. Sebero Altuben 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era, beste herrialdeetako joko interesgarriak ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek. Horrez gain, Bidezko Merkataritzako produktuak ikusi eta erosteko aukera izango da eta tabernan Bidezko Merkataritzako kafea hartzeko aukera.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Lif eta Lisabo talde honddarribitarrek kontzertua eskainiko dute gaztetxean, gaueko 22:00etan.

■ KONTZERTUA
JAM ARETOAN

Koma talde nafarrak lan berria aurkeztuko du Bergarako Jam aretoan. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da eta sarrera 1.000 pta kostako da.

30

igandea

■ ZINEA

Aún se lo que hicisteis el último verano, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ CORAZON DE ENCINA

Kultura astearekin amaitzeko, 11:00etan futbito txapelketako finala jokatu da. 16:00etan txintxon, kuartrola, domino, mus eta billar txapelketako finalak. 19:00etan play-back lehiaketa eta 19:30ean elkarte gazteen musika emanaldiak. 20:30ean sari banaketa izango da eta lehendakariak Asteari amaiera emango dio.

31


astelehena

■ ZINEA

Aún se lo que hicisteis el último verano, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.



Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

1 asteartea

■ ZINEA

Aún se lo que hicisteis el último verano, Alai zinemán, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ ERAKUSKETA MONTERRONEN

Ikerlanek bere hogeita bost urteen historia kontatzen duen erakusketa ireki du ekainaren 5a arte, Monterronen. Horrekin batera, eurek egindako hainbat produktu ere ikus daitezke erakusketan.



■ MUSAKOLAKO ASTOA

Astoaren monumetaren kostoak ordaintzen laguntzeko, Euskadiko Kutxa edo Kutxara jo dezakezue.

■ **BERTSO AFARIA**
AEDk bertso afaria antolatu du ekainaren 4rako, Alkarte elkarteán, 21:00etan. Jon Sarasua eta Andoni Egañarekin afaltzeko Irati, Monte eta AEDren egoitzan eros daitezke.

■ **DONOSTIAKO ARRASATEARRAK**
Donostian bizi diren mondragoetarrek urtero ospatzen duten Arrasatearren Eguna ekainaren 12an izango da. Anoetako Gasca kiroldegian elkartuko dira areto-futbol partida jokatzeko. 13:00etan Esklabetan meza eta 14:30ean bazkaria, Baso-Etxe Elkarteán, Antiguon. Deialdia jaso ez duen norbait ezagutuz gero deitu: 943 21 36 59ra.

■ **JESUSI ETXEBARRIA MUSIKA ESKOLA**
Ekainaren lehenean irekiko du Jesusi Etxebarria Musika Eskolak matrikulazio epea. Interesatuak 17:00etatik 21:00etara pasa daitezke eskolako egoitzatik (Iturriotz kalea, 32) edo 943 79 17 67ra deitu.

■ **MENDI BIZIKLETA IRTEERA**
Ekainaren 5erako, larunbata, irteera antolatu du Besaideren Gazte Ekintza Taldeak Urbasara mendi bizikletan. Izena emateko Besaideren egoitzatik pasa zaitezke ekainaren 1ean eta 2an, arratsaldeko 19:30etik 20:30era bitartean.

■ **MENDI IRTEERA**
Besaide Mendizale elkarteak Aulesti-Illntzar (Bizkaia) mendi irteera antolatu du, ekainaren 6rako, igandea. Izena emateko Besaideren egoitzan, ekainaren 1etik 3a bitartean, 19:30etik 20:30era.

■ **HAUR DANTZARIEN EGUNA**
Ekainaren 20an egingo da Arrasaten Haur Dantzarien Eguna. Hori dela eta, herrira etorriko diren haurrak etxeetan hartzeko izen ematea zabalik dago. Horretarako Hire liburudenda eta AEDra jo daiteke.

■ **GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA**
AEK-k glotodidaktika ikastaroa antolatu du uztailerako. Izena emateko 943 77 03 69an, ekainaren 4a baino lehen. Saioak uztailaren lehenengo astean hasiko dira.

■ **UMEEN DANBORRADA**
San Juanetarako umeen daborradan izena emateko epea zabalik dago oraindik SUDC elkarteán. Baina ez umeena bakarrik. Helduen danborradan parte hartu nahi duenak ere aukera du izena emateko. Horretarako SUDC elkarteak Pablo Uranga kalean duen egoitzara jo.



ARTOUR TRAVEL
bidaiak

San Juanetan Arrasaten?

- Salou, 3★ 27.160 pta
- Benidorm, 2★ 25.445 pta
- Mallorca, 3★ 48.100 pta
- Tenerife, 4★ 62.000 pta
- Dominikar Errepublikaren dena barne 121.950 pta
- Londres, hegazkina bakarrik 21.000 pta

Maixu Arano, 2
Portaloian
Tel.: 943 79 32 22
20500 Arrasate

**Eskaintza ezin hobekak
Artour Travel-en!!!**

JESUSI ETXEBARRIA MUSIKA ESKOLA

1999-2000 ikasturteko matrikula epea zabalik.
Ekainaren 1etik 18ra.

Solfeo, abesbatza, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta gitarra (azken hau modalitate guztietan: klasikoa, rocka, blus-a, modernoa, eta abar, solfeoz edo zifraz).

Iturriotz, 32 etxabea • ARRASATE • Tel.: 943 79 17 67

Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

URIBARRIN

Aparkaleku lanak eliza ondoan.

AGERRE PLAZAN


Oraindik ez dira lanak amaitu.

A-20 ETA ZALDISPEN

Oinezkoen pasabidea egiten hasi dira.

JOSE LUIS IÑARRAN

Errepidea konpontzeko lanak.




Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena




OSTIRALA 28

Zeru lainotuak eta euri arriskua. Ekaitza ere egin dezake. Tenperatura ez da aldatuko.



LARUNBATA 29


Euri txikia egingo du eta tarteka ekaitza ere egin dezake. Haizeak ahul joko du hegoalde-tik.



IGANDEA 30

Lainoak areagotuko dira orduak aurrera joan ahala. Tenperaturak behera egingo du poliki-poliki.

Ilargia



Ilbetea

Igandean, maiatzak 30, ilargi beteak izango dugu. Hilabete berria beraz, ilbeheran hasiko dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean
18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean
18:30 (Bezpera abestiak)
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)


Santa Teresa

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%98,2



Urteurrena

- Maiatzaren 26an Xabier Etxebarria hil zen, Arkoko zuzendaritza batzordeko kide ohia.
- Leintze Elkarteak omenadia egin zion Heriberto Altunari.
- Postetxeko langileek greba egin zuten maiatzaren 21, 22 eta 25ean, posta lege berriaren auzian aurrerapenik ikusten ez zutelako.

Bertso

**Ekainak
4 ostirala**

**21:00etan
Alkartu
elkartean**

Menua:

- Almejak patatekin
- Erredondoa saltsan
- Etxeko pastelxoak
- kafe osoa
- Piperdun bertsoak

*Prezioa: 3.000 pzta
2.500 pztkide eta gazteek*

Andoni Egaña

Txartelak: AED, Irati eta Monte tabernetan.

Antolatzaile: AEDko Bertso Eskola
Laguntzaile: SUDC Batzordea

afaria

Zapatak Tatuajeak Arropak

Zapatak Tatuajeak Arropak

Zapatak Tatuajeak Arropak

Zapatak Tatuajeak Arropak

TOTEM

**Bodypiercing-a
Bodypiercing-a
Bodypiercing-a
Bodypiercing-a**

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88
Zarugalde, 14 • ARRASATE

astea bi hitzetan

■ Jose Luis Calleja argazkilaria hil da

Jose Luis Calleja, *El Correo* egunkariko argazkilaria hil zen joan den igandean Azkateko mendatean, Elgoibarren, bere autoak aurrez aurre jo zuenean beste bat. Lagun baten ezteietatik zetorren, Azkoititik, istripua izan zuenean. Jose Luis eibartarra zen eta *El Correo*ren Eibarko erredakzioan egiten zuen lan, baina askotan etortzen zen Arrasatera argazkiak ateratzera. Goian bego.

■ Kultur Errota bukatu da

Arrasatera makinatxo bat artista ekarri ostean, Kultur Errotak bukatu du bere egitekoa, oraingoz behintzat.

Igandean izan zuen azken ekitaldia. Iñaki Salvador pianojolea eta Kirrikoketa txalaparta taldea batera aritu ziren Mondragon Hotelean. Piano eta txalaparta soinuak nahastuz, proposamen berri bat aurkeztu zieten han bildutakoei. Jende gutxi bildu zen arren, giro polita izan zuten.

■ Ustekabea Ederlanen

Astelehen iluntzean suhiltzaileak Fagor Ederlanera joan behar izan ziren. Labe handi bat zulatu egin zen Urribarriko fabrikari eta horrelakoetan egiten den bezala, badaezpada joan ziren. Une hartan salda asko zegoen labean, 1.500 gradutan gori-

gori. Zorionez, salda segurtasuneko asketara errenditu zen eta ez zen ezer txarrik gertatu.

■ LKS

Arrasateko LKS Aholkularitzak zuzenduko du euskararen normalizaziorako plan estrategikoa lantzeko prozedura. Asteazkenean 650 bat gizarte eragilek sinatu zuten euskararen normalizaziorako plan estrategikoko parte hartzeko konpromisoa. LKSren egitekoa izango da 650 eragile hauen arteko batasuna lortzea.

Sinadura ekitaldi honen ostean, hirugarren fasearekin hasiko da, agiriak zehaztutako urratsak betetzen.

■ Bizikleten erabilera sustatuz

Ostegunean eta ostiralean egin ziren Bizikletentzako Azpiegiturei eta Bidegorriei buruzko I. Jardunaldiak. Arrasateko Lurrats elkarteak eta Donostiako Kalapie elkarteak antolatuta, bizikleten erabilera sustatzea izan da jardunaldi hauen helburua. Bi egun hauetan, Europan egin diren egitasmoen inguruan aritu ziren.



“

Azkenik, zera nabarmentzen duen Edorta Arana EHuko irakasleak: (ETBko) albisteen %52 Hego Euskal Herriari buruzkoak dira, %30 'atzerrikoak', %16 Espainiakoak eta %3 Frantziakoak. 'Ipar Euskal Herriak ez du ia tokirik ez pertsonailetan ezta albisteetan', gaineratu zuen Aranak”.

GORANE AGIRRE

Euskaldunon Egunkaria
1999.5.22



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Euskal Eskola Publikoa Eraikitzen

Zure etorkizuna eraikitzen



Batxilergo guztiak

- Natura eta Osasun-Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
- Teknologia Batxilergoa

Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako bideak

Hizkuntzak

Eskaintza zabala:

- Ingelesa
- Alemaniera
- Frantsesa
- Italiara

Modalitate eta Aukerako ikasgaietan oso eskaintza zabala

- Elektroteknia
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua
- Mekanika
- Ekonomia eta enpresa antolaketa
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna
- Laborategi teknikak
- Psikologia
- Antropologia

Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Soldadura eta galdaragintza
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta pulbimetalurgiaren bidezko produkzioa

Aurre-inskripzioa

Ekainaren 1etik 9ra

Matrikula

Uztailaren 1etik 9ra



BERRI GEHIAGORAKO



ARRASATE: 943 79 83 00 / 943 79 44 47
ARETXABAETA: 943 79 79 00 / 943 79 79 43

 arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA

Batxilergo teknologikoa ikastoletara

Datorren ikasturteetik aurrera, batxilergo teknologikoa Almen eta San Viator ikastoletan ikasi ahal izango da.

Horixe jasotzen du joan den ostiralean EPPK, Almenek eta S. Viatorrek sinatu zuten hitzarmenak.

Honetarako dagoeneko hasi dira aipatutako hiru ikastetxeetako irakasleak elkarlanean. Izan ere, hurrengo bi urteetan Eskola Politekniko-ko irakasleen laguntza jasoz, San Viatorreko eta Almeneko irakasleak prestatzen joango dira, batxilergo teknologikoa eman dezaten. Eskola Politeknikoak orain arte eskaini dituen ezaugarri pedagogikoekin irakatsiko dute batxilergo teknologikoa.

Ekitaldian honako hauek izan ziren: Ignacio Lakuntza, Eskola Politekniko zuzendaria; Txaro Iraeta, Almen Ikastolako zuzendaria; eta Itsaso Nuin San Viator Ikastolako zuzendaria.

Danborrada ume beharrean

SUDC elkarteak Arrasateko neska-mutikoak behar ditu San Juanetako danborrada osatzeko. Izan ere, oraindik ere makinatxo bat gaztetxo falta omen da urteroko danborrada egin ahal izateko.

Izena emateko SUDCek Pablo Uranga kalean duen bulegora joatea besterik ez dago arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak bitartean. Bihartik hasi eta astebeteko epea izango da izena emateko.

Nagusien danborradarako izena eman nahi duenak ere oraindik badu lekurik.

Arrasatek 35 lanorduko astea eskatu zuen ostiralean



UGTko langileek ika-mikak izan zituzten Ertzaintzarekin.

Ikastetxe, denda, supermerkatu, gasolindegia, kooperatiba eta bestelako lantegi gehienek ateak itxita izan zituzten ostiralean.

Oihartzun zabala izan zuten, beraz, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta UGT sindikatuek modu bateratuan eta CCOO bere kasa, egun horretarako deitu zuten lanuzte orokorrak.

Kooperatibei dagokienez, Fagor Elekatresnak, Fagor Ederlanek eta Coprecik bat egin zuten grebarekin. Euskadiko Kutxako langileek, berriz, lan egitea erabaki zuten, ostiralean bertan egin zuten bileran.

Kooperatiba ez diren ondorengo enpresetan ere bat egin zuten sindikatuen aldarrikapenekin: JMA, Roneo, Gamei, Aita Menni, Polmetasa, Union Cerrajera, Uri-

besalgo, Meca eta Cespa.

Irakaskuntza arloari dagokionez, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Almen ikastolek, La Merced ikastetxeak, Musakola, Erguin eta San Andres herri ikastetxeek eta Institutuak kalera irritea erabaki zuten. Mondragon Unibertsitatean ingeniartzako ikasleek, batxilergoek eta heziketa zikloetakoez lanuztea egitea erabaki zuten. Irakasleek eta gainontzeko langileek, ostera, ez zuten grebarik egin.

Administrazio arloari dagokionez, Arrasateko Udalean, Deba Garaiko Eskualde ospitalean eta anbulatorioan gutxieneko zerbitzuak baino ez zituzten izan.

Deba Garaiko Mankomunitateak greba egin zuen. Baita Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko udalek ere. Ez, ordea,

Aretxabaletakoak.

Komunikabideei dagokienez, Arrasate Komunikabideak elkarteko langileek greba egitea erabaki zuten. Horregatik, ATBK bakarrik albistegi murriztuak eskaini zituen eta *Arrasate Press*, larunbat goizean banatu zen. Kioskoetan ere ohi baino egunkari gutxiago egon zen salgai

Sindikatuak, berriz, kalera eraman zituzten beren aldarrikapen nagusiak: 35 orduko lanastea, gizarte soldata eta ordutegitik kanpoko lanorduetan kentzea. Eguerdian UGTk deitutako kale agerraldia izan zen.

Arratsaldean, berriz, alderdi, talde eta sindikatu askok deitutakoa irten zen Sebero plazatik. Goian aipaturiko liskarra izan ezik, egun lasaia izan zen ostiralekoa.

Olarte kaleko zorua konponduko da

Arrasateko Alde Zaharrarekin egin zen moduan, orain Sebero Altube plazatik hasi eta Arbolapetaraino doan Olarte kalea ere berriztu egingo da, oinezkoen beharrak bereziki kontuan hartuz.

Lur zorua konpondu, kale argi berriak ipini eta Telefonica eta Iberdrolaren kable guztiak lurperatuko dira. Era berean, bukatu egingo dira Olarte kaleko azken etxebizitzetan gas naturala sartzeko lanak.

Honetaz gain, lehen aipatu ditugun bi plazetan, bereziki, kale argi ugari jatzeko asmo dago, jaietan ekitaldiren bat egiteko aukera izan dadin. Hone-

taz gain, jarleku gehiago ipiniko dira eta baita pertsona ezinduentzako iturri bat ere.

AUTOEN SARRERA MUGATUA

Murriztu egingo da autoen sarrera leku hauetara eta errepidea eta oinezkoentzako pasabideak argi eta garbi bereiztuko dira, espaloi berrien bitartez.

Honela bada, autoak gajejan sartzeko edo zama lanak egiteko sartu ahal izango dira Olarte kalearen beheko aldean eta jarraian datorren San Frantzisko kalean. Oro har, alde zaharrean bakarrik garbiketako ibilgailuak eta zama lanak egin behar dituztenak



Seberon hasi eta Arbolapetarainoko tartea konponduko da.

sartuko dira. Biteri etorbideko sarrera, berriz, soilik oinezkoentzat izango da. Lan hauek egiteko ia 300 milioi pezeta-ko aurrekontua onartu du uda-

lak. Orain, baldintza plegua egin eta lanak adjudikatzea falta da. Urria-azaroetan hasiko dira lanak eta hogeita bat hilabete iraungo dute.

Egitasmo berriak Lantegi Eskolan

Arrasateko Lantegi Eskolak esku artean du dagoeneko datozen bi urteetarako proiektua: Antzuolako Olara etxea berritzea, hain zuzen ere.

Honetarako, zain daude Madril-ek diru laguntzarik eman- gote dien. Erantzuna baiez- koa izanez gero, 50 bat gaztek parte hartuko dute proiektuan. Honela, hasierako sei hilabete-

etan ikasi beharrekoak ikasi eta abendu aldean Antzuolan hasi- ko lirakeke lanean.

Lana egiten duten gazte- ek INEMek ordaintzen duen soldata bat jasoko dute. Oste- ra, etxea berrizteko materiaile guztia, Antzuolako Udalak ipiniko du. Lantegi Eskolan sartu nahi duenak INEMen eman beharko du izena.

Pilar Mondragon eritetxean

Pilar Mondragon iheslari arrasatearra Fleuryko espe- txeetik Fresnes-eko eritetxe- ra eraman behar izan zuten asteazkenean, 30 eguneko gose grebaren ostean, oso- oso makal zegoelako.

Frantziako epaitegiek ezarritako bost urteko espe- txe zigorra bete ostean, Pila-

rrek gose grebari ekin zion apirilaren 26an, bere zigo- rra bete eta gero Espainia- ratu egingo zuten beldur zelako. Ekainaren 4an era- man dezaketela Espainiara.

Ostiralean kale bilkura egingo da Sebero Altube pla- zan, 19:30ean. Ondoren, kale agerraldia egingo da.

Egunak: ekainak 2 eta 3

(asteazkena eta osteguna)

Ordua: 15:30etik 17:00etara

Tokia: EKINen egoitza (Pablo Uranga, 6 behe)

Emaileria: Miren Arrieta Estetika Zentrua

Matrikula: 1.500 pta. (egunean bertan)

Manikura Ikastaroa

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Miren Arrieta
Estetika Zentrua

Alkate ohiak



Jose Antonio Ardanza
(1979-1983)

Gerra ostean herriak hautatu zuen lehen alkatea izan arren, urte gogorak izan ziren Jose Antonio Ardanza-arentzat Arrasateko alkatez egin zituenak: "Diktaturatik gentozen eta ez zegoen demokraziaren kulturarik, ezin asmatu desadostasunak konpontzen. Udala, gainera, zorrez beteta aurkitu genuen. Dena zen erreibindikazioa. Indarkeria eta presoan arazoa ere puri-purian zeuden". Urte gogorak, nahiz eta udalbatzan erabateko gehiengo (11 zinegotzi) izan.

Euskadiko Kutxan ari zela etorri zitzaion alkate izateko proposamena. Arrasate Pasealekuan bizi zen artean.

Tejerada ere garai hartan gertatu zen. 82tik aurrera, aldiz, Kontzertu Ekonomikoa onartu eta gero, "gauzak bere onera etortzen hasi ziren poliki-poliki".

Gipuzkoako Foru Aldundian lehenengo eta Lehendakartzan ondoren, oharkabean bezala, urrunduz joan da Arrasatetik. Hurrengo alkateari zera gomendatuko lioke, herria batzeko ahaleginak egin ditzala.

Zu alkate bazina?

Musika maite du Joana Lasak. Arrasate Musikalen ibili ostean, Musika ikasketak ari da egiten Euskal Herriko Unibertsitatean. Hori dela eta, egunero joaten da Bilbora 20 urteko neska hau. Trititia jotzen du Txinparta taldean, erromeriak, ezteiak eta jaiak alaitzen. Infernuko hauspoa beste garai bateko kontu bezala ikusten du.

— Alkate bazina, zein izango litzateke zure lehen erabakia?

— Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko moduan jarri. Horrekin batera, alkatezta herritarren beharriaz hurbiltzeko ahaleginak egingo nituzke.

— Nolako dohainak behar ditu alkate batek?

— Entzuten jakin behar du eta momentu bakoitzean aukerarik egokienak zeintzuk diren jakin.

— Zer gomendatuko zenioke hurrengo alkateari?

— Ahal duen guztia egiteko herriaren alde.

— Noizko emakume bat alkate?

— Etorriko da momentua.

— Proposatuko balizute, aurkeztuko zinateke?

— Orain ez, baina gero zeinek daki...

— Jakinaren gainean zaude udalean egiten diren lanez?

— Bai. Arrasate Presse, ATBk eta baita egunkariak ere nahiko informazio ematen dute. Hala ere, ez dut uste dena jakinarazten denik.



Joana Lasa

— Gaztetxea Arrasateko gazteen ispilua da?

— Denen ispilua ez da, baina aukerak hor daude eta jakin egin behar dira aprobetxatzen.

— Arrasate leku ona da musika ikasteko?

— Ezin gara kexatu, hor dugu eta, Arrasate Musikal, baina prestakuntza ona jaso nahi baduzu, Arrasatekoa ez da nahikoa.

— Zeintzuk dira Arrasate dituen premiarik gorrienak?

— Etxebizitzena oso gaizki dago gazteontzat. Ezin gara etxe bat errostera sartu, oso garesti daudelako. Benetan arazo larria da.

— Zer espero duzu hauteskunde hauetatik?

— Egungo egoera hobera aldatzea, bai Arrasaten eta baita Euskal Herrian ere.

**TXOKO
TABERNA**

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozokak

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Printzak

❖ Euskal Herritarrok alderdiak **Juan Ramon Garai**, sasoi batean CCOOeko eta gaur egun ESK sindikatuko buruzagia jarri du bosgarren tokian, zinegotzi irtekeko moduan. EHko zenbaitek uste du Garaik lagun diezaiokeela taldeari Ezker Batuak 1995eko udal hauteskundeak atera zituen botoak (1.129) irabazten.

❖ Boto horiek erabakigarriak izan litezke. Izan ere, 1995eko udal hauteskundeetan EAJ-EA koalizioak EHk baino 1.300 boto gehiago lortu baitzituen. Iazko hauteskundeetan, berriz, aldea 537 botorra murriztu zen.

❖ Azken bi aste hauetan ezer gutxi egin dute alderdi politikoeak. Akaso gaurtik aurrera, kanpaina ofizialean sartzen garenean, berriz ere animatuko dira. Auskalo.

❖ PP ez da inon ikusten. **Fraga Iribarne** Ondarroan aurkeztu da eta **Esperanza Agirre** Zarautzen. **Mayor Orejaren** emaztea Mondragoekoa izanik, pentsa zitekeen hemen ere egingo zutela zirko piska bat, baina Arrasate ez bide da plaza egokia horretarako.

Quisiera ser alcalde...



Paco Garcia

Hamasei urte zituela, Arrasatera etorri zen anaiarekin batera, Andaluziako Montilla herritik. Sasoi batez apopilo egon ziren San Andresen. Gurasoak etorri zirenean, aldatu egin ziren. Ezkondu ere ezkondu zen eta hiru seme ditu. Iaz emaztea eta aita galdu zituen zoritxarreko istripu batean.

Aitona PSOEko sortzailetariko bat izan zuen. Bera ere hortxe ibili da beti, baina 82an hasi zen militantzia serioan. Fagor Elektresnetan dabil lanean, nahiz eta orain bere alderdiak liberaturik dagoen. Hamabi urte egin ditu zinegotzi lanetan.

Autodidaktatzat du bere burua, duen apurra ahaleginaren ahaleginez lortu izan baitu. Zintzotasuna eta leialtasuna estimatzen ditu gehien pertsonengan. Ez du amestitzen dohain horiek ez duen lagunik. Itxaropen handiz eta mesfidantza apur batez ikusten du egungo egoera.

Irakurri duen azken liburua Tomas y Valiente Auzitegi Konstituzionaleko lehendakari erailaren bat izan da. Burgosen dagoen herri eder bat, Pozas de la Sal, ikusteko gomendatzen digu.

HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN

- Gazteentzako ikastaroak
- Enpresa profesionalentzako ikastaroak
- Etorkizuneko profesionalentzako ikastaroak
- Hizkuntza irakasleentzako ikastaroak

EAS - VELE

San Martzial, 39 1 - C. 20005 Donostia
Tel.: 943 42 80 60. Faxa: 943 42 14 79



aurre eginez

zuzena duten 1.895 familiaren infor-
 ak erantzuten ditu, Elkartegintzaren
 eko laguntza, egoera larriak konpon-
 har den sostengua eta kasu guztien

ak eskualdeka antolatuta daude, aha-
 Modu horretan, zerbitzu hauek behar
 o urrundu beharrik. Badira beste hain-

- **Kirol Elkartea:** kirola egiteko egitarauak eta ekintzak antolatzen dira, bereziki adimen urritasuna dutenentzat.

- **Babes Fundazioa:** 1983a ezke-
 ro gurasoak hil ondoren, babesik gabe gelditu direnak babesten saia-
 tzen da.

- **Uliazpi Fundazioa:** Adimen urritasun sakoneko pertsonak har-
 tzen ditu, 1967a ezker.

- **Gureak Lantegiak:** lana emat-
 die adimen urritasuna dutenei.



Felik ere bere anaiarekin batera lan egiten du Gureak Lantegian.

ziren. Hiru urte geroago, Gure-
 ak Elkartea Mugatua eratu zen.
 Gaur egun 15 lantegi ditu.
 Horietako bat Arrasaten. Bide-
 kurtzeta kalean. Hara joaten
 dira gure bi lagunak goizeko
 08:00etatik 17:00etara.

JOSU

Josu Jauregi oraindik gaztea
 da lanean aritzeko. Hamabi
 urte ditu eta Down sindromea
 du. San Viator eskolan ikas-
 ten du, baina horrez gain, pia-
 no eskolak hartzen ditu. Eta
 zelan jotzen duen, gainera!

Ascchero sistemaren
 laguntzarekin ikasi du pianoa

jotzen. "Hasieran erritmo eta
 doinu lasaiak baino ez zituen
 gustuko. Bestelako doinu guz-
 tiak zaratatzat jotzen zituen",
 gogoratzen du bere amak.
 "Salsa eta merengea ditut gus-
 tuko eta abesti bat ere egin
 dut", aitortu zidan Josuk:

*"Hemen dugu udaberria
 disdiratsu eguzkia,
 hapian gure txoria,
 loreak zuri maitia".*

Josuk Txirriekin eta
 Mirriekin batera abestu du
 aurtan Atzegik atera duen kan-
 painako abestian. "Peter Anso-

renak bere etxean hartu gin-
 tuen eta han abesten izan
 ginen", diosku.

LAGUNTZA GEHIAGO

Hirurek bizitza normala egi-
 ten dutela diote euren gura-
 soek, baina oraindik gauza
 asko dagoela egiteko. Isabe-
 lek esaterako, Josuren amak,
 uste du ordubeteko eskola
 berezia ez dela nahikoa.

San Viator ikastolan ikas-
 ten du Josuk, beste neska-
 mutikoekin batera, nahiz eta
 egunero ordubeteko eskola
 bereziak hartzen dituen.

"Heziketa arloan lan han-
 diagoa egin beharko litzate-
 ke. Irakasle batek lan izuga-
 rria izaten du eskolan dituen
 haur guztiei irakasten eta ezin
 zaio eskatu aparteko ahalegi-
 nik. Hori dela eta, beste modu-
 ren batean antolatu beharko
 litzateke haur hauen hezike-
 ta. Beti ere, noski, integratziora
 zuzendua".

Felisak, Feli eta Jesus
 Mariren amak, penaz gogo-
 ratzen du bere seme-alabak
 arazoak zituztela esan ziote-
 nean. "Felik bost urte zituen
 Jesus Mari jaio zenean. Arris-
 kua izan zitekeela bagene-
 kien, baina eseritzeko arazo-
 ak zituztela ikusi arte, ez
 genuen jakin atzeratuak zire-
 la. Bai, jendeak noiz behinka
 kalean gurutzatzen garenean,
 atzera begiratzen du. Agian
 birekin ikusten nautelako izan
 daiteke, baina, gehiago da ez
 dutelako bizimodu hau eza-
 gutzen. Denok zabalagoak eta
 ulerkorragoak bagina, askoz
 ere errazagoa litzateke". ■



egiten du lan Jesus Marik.

Marijo Deogracias

Komiki ez sexisten II lehiaketa

Arrasateko Udalak Komiki Ez Sexisten II lehiaketa antolatu du Emakume, Gazteria eta Euskara sailen laguntzarekin. Komikiek hainbat ezaugarri bete beharko dituzte: Egileek edozein gai aukeratzeko eskubidea izango dute, eta lanak 17x24 cm.ko edo proportzio bereko formatu bertikalean aurkeztu beharko dira, eta bitik lau orri bitarte hartuko dituzte. Koloretakoak edo zuri-beltezkoak izan daitezke, eta lumaz, errotuladorez, bolaluz edo pintzelez egin ahal izango dira. Komikietako testua euskara zein gaztelaniazkoa izango da, eta egilearen izena ez da agerian jarriko.

SARIAK

Hainbat sari banatuko dituzte antolatzaileek. Lehen sari-

tuak 90.000 pta jasoko ditu. Emakume eta gizezkoen arteko tratu berdintasuna ongien islatzen duenak 60.000 pta.ko saria izango du, eta emakume egilearentzat ere beste horrenbeste izango da. Gazte saria 30.000 pta.koa izango da, eta euskara saria 30.000 pta.koa.

Lanak datorren uztailaren 13ko eguerdiko ordu biak baino lehen aurkeztu beharko dira, Emakume Sailak Arrasateko Udalean duen bulegoan.

Irabazleen izenak, berriz, irailaren 24a baino lehen emango dira jakitera. Irabazleen komikiak aldizkari batean argitaratuko dira.

Lanak behar den mailara iristen ez badira, sariak eman gabe gelditu daitezke.



Bilboko Iñaki Beraza komikigilearen atal bat.

Kalitateak, mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

ITZIAR ARANBURU ETA ARANTZA BEREZIBAR

“Arrasatek betidanik izan du kanturako tradizioa”

Itziar Aranburuk eta Arantza Berezibarrak burubelari dihardute Deba Garaiko Eskola arteko Abesbatzen topaketa antolatzen. Topaketa hau larunbatean izango da, Amaia antzokian, goizeko 11:30etik hasita. XII aldia du eta lehen aldiz Arrasateko ikastolak antolatu du, Arrasateko Udalaren laguntzarekin.

— Zein abesbatzak hartuko dute parte topaketa honetan?

— Arrasatek mordoska batek. Eskoriatza, Bergara eta Oñatitik ere etorriko dira. Guztira hamasei talde izango dira. Hasierako urteetan arratsaldez bakarrik izaten ziren kantaldiak, baina orain goizez ere izaten dira, gero eta jende gehiagok hartzen baitu parte.


— Bestelako talderik izango da?

— Azken urteotan Arrasate Musikaleko hainbat musikarik hartzen du parte, saio bakoitzaren bukaeran hainbat pieza eskaintzeko. Aurten Arrasate Musikaleko Banda Txikia izango da goizez; eta arratsaldez, berriz, Arrasate Musikaleko Tronboi Taldea. Horretaz gain, Goikobalu Txikik ere hartuko du parte.

— Nondik nora topaketa hau?

— Topaketa honek XII aldia izango du aurten. San Frantzisko Xabier ikastola hasi zen antolatzen, eta lehenengo urtean lehiaketa erara antolatu genuen. Dena den, laster jabetu ginen hori ez zela sistemarik egokiena. Lehiatzeko baino, umeei ikastetxeetan egiten den lana plazaratzeko aukera eman nahi genien. Harrezkero topaketak egin izan ditugu urtero.

— Noiztik antolaketa lanetan?



— Aste Santuko opor aurretik hasi ginen. Batzorde bat osatu genuen San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolako artean. Arantza Galdos, San Frantziskoko idazkariak, izugarrizko lana egin du, urtero topaketa hauen antolakuntzan egin izan ohi duen moduan.

— Arrasateko umeei kanturako zaletasun handia dute?

— Bai. Arrasatek betidanik izan du kanturako tradizioa. Abesbatzak oso sustraituta daude. Ohitura hori umeei ere landu izan da, eta topaketa hauen bidez hori kaleratu nahi izan dugu.

— Jende asko espero duzue?

— Ikusle asko etortzen da urtero abesbatzen topaketara, batez ere familia artekoak. Oso arrakastatsua izaten da ekitaldia.

— Aurtengo topaketak ezaugarri berezirik izango du?

— Arrasateko Ikastola izango da antolatzaileraren lehenengo aldiz. Bestela, ez du aldaketa handirik izango.

“Umeei ikastetxeetan egiten den lana plazaratzeko aukera eman nahi izaten diegu”

aste gazte

■ UDARAKO EKINTZAK

• Udan zeregin jakin gabe baldin bazabiltza, Gazte Bulegoan dugu zenbait informazio interesgarri: hizkuntza egonaldiak Segurako aterpetxean, brigada internazionalistak, auzolandegiak... Baduzu non aukeratu.

■ HIZKUNTZA EGONALDIK

• Diputazioaren kanpainaren barruan 18-29 urte artekoentzat abuztuaren 1etik 15era Segurako Aterpetxean, ingelesa ikasteko aukera. Izen emateko epea: maiatzaren 26tik ekainaren 25era, Arrasateko Gazte Bulegoan.

■ UDAKO UNIBERTSITATEAK

• Bulegoan aurki dezakezu EHUK eta UEUK antolaturiko ikastaroen berri. EHUn kasuan izen emateko epea maiatzaren 3an zabaldu da, plazak bete arte. UEUn parte hartzeko, berriz, bi epe daude: Miarrizten egingo diren ikastaroetarako ekainaren 1etik 25era eta Iruñean egingo direnentzat ekainaren 1etik 30era.

■ LANA

• Zintronigo eta Fiteroko Mankomunitaterako gizarte langile bat behar dute. Epea: 10.

• Irungo Musika Eskolarako kontrabaxu eta txistu irakasleak behar dira. Epea: ekainak 19.

■ IKASTAROKAK

• Debako Arte Eskolak, udarako ikastaroak antolatu ditu: grabatu kalkografikoa hastapen mailan, zura, zeramika, marmol eskultura, brontzea... Epea: ekainak 21.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Fundación Empresa Pública k urteroko beka deialdia egin du, Grupo Alcoa-Inespalen praktikak egiteko aukera. Epea: ekainak 10.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

JOSE LUIS MARTINEZ DE UBAGO (POLIKLINIKAKO HEMODI...

“Medikuenganako ko

Jose Luis Martinez de Ubago medikua, 1943. urtean jaio zen Maalan. Calvo maisuaren udal eskolan egin zituen hasierako urteak. Ondoren, Gasteizen ikasi zuen eta gero Iruñean, Hemodinamikan espezializatu. Gero Cantabriako Valdecillasera joan zen. Han, Kirurgia eta Hemodinamika unitate berri bat ireki eta hamalau urtez hantxe izan zen. Hamaika urte geroago Euskal Herrira itzuli zen, ikerkuntzan segitzeko asmoarekin. Orain Donostian ari da lanean, berak eta bere lankideak sortutako Poliklinikako Hemodinamika saileko buru moduan, urtean batez beste 2.500 gaixo hartuz.

— Zer da Hemodinamika?

— Kardiologiaren atal bat. Bihotzera doazen arterien eta zainen egoera aztertzen du. Odola garraiatzen duten bide hauek garbi dauden edo non-

baiten estuasunik duten ikusten du (tronbosi arriskua). Horretarako hodi batzuk sartzen dira zainetan edo arterietan.

80. hamarkadatik aurrera, ordea, diagnostikoa egiteko ezezki, sendabide moduan ere erabiltzen hasi gara. Zain edo arteriaren batek estuasunik izanez gero, hoditik zehar puxikatxo bat sartzen da estuguneraino; honek presioa egiten du, traba apurtu arte. Zauriren bat sortuz gero, hodi beretik beste puxikatxo bat bidaltzen da. Zauria tapatuko duen sare antzeko bat darama honek barrualdean.

Edozeinek infarto bat izan eta hamar ordu baino lehen hona ekarri gero, goian aipatutako guztia egin eta hurrengo egunean etxera joan daiteke. Primeran, ezta?

— Nolatan aukeratu zenuen bide hau?

— Txirripaz. Aitona Mondragoeko medikua izan zen, Alberto Martinez de Ubago, eta banuen bide horri jarraitzeko obligazio antzeko bat. Gero, Iruñean Kardiologia eta Kirurgia egin nituen, Gomez Duran medikuarekin. Artean derrigorrezkoa zen Hemodinamika ikastea. Oso gutxi

adoretua izaki, horretan aurrera egitera ausartu nintzen, ikerkuntza egiteko asmoarekin. Horrexegatik egin ditut hainbeste aurkikuntza. Lehenengoetarikoa izan naizelako, ez besterik...

— Zure lana hil edo bizi-ko da. Ohitu zara horretara?

— Azkenean ohikeria bihurtzen da. Dena dela, kontuan hartu behar da gaixo asko niregana heldu orduko erdi-purdi daudela. Beraz, ahal dena egin beharra dago, arriskatu beharra dago, ezinbestean.

Zailagoa izaten da gaixoarekin harreman estua lortzea. Eta hori gure lanbidean ezinbestekoa da. Orain jende askok ez du medikuarengan bat ere konfiantzarik eta mediku askok izugarritzko beldurra diete gaixoen salaketei. Gaixoen eta medikuen arteko konfiantza galtzen ari da, tamalez.



“Osasuntsu izateko, bizimodu honetan hobe da gibelandia izatea... gauzak lasai hartu behar dira, ez estutu eta pozik bizi!”

DIMITA)

Confiantza galtzen ari da''

Niri asko laguntzen dit, adibidez, mondragoetar bat datorrenean; tratu berezia ematen diot.

— Hemengo medikuntzak osasun ona du?

— Espainiako eta Europako Kardiologia-laguntzarik onenetarikoak daukagu hemen. Larrialdi zerbitzuak oso ondo dabilta eta eritxeetako zerbitzuak ere oso onak dira. Gainera, Euskal Herria herri txikia izanik, zerbait gertatu eta segituan gaude prest. Larrialdi batean aski ditut bost minutu ospitalera etortzeko.

— Bizimodu osasuntsua izateko errezetarik badago?

— Orain etengabeko beldurrez bizi gara. Goi mailako exekutiboak beldurrik ez badu, ez du lanean behar beste errenditzen, ez du estresik eta orain estresa beharrezkoa da etekinak lortzeko. Bihotzeko gaitxoak nortasun berezia dauka: txukunegia, guztia zuzen egin beharra, den-dena kontrolatu beharra...

Osasuntsu izateko, hobe da gibelandia izatea... Ni horrela hezi ninduten; gauzak lasai hartu behar dira, ez estutu eta pozik bizi!

— Arrasaten jaiotakoa bai, baina arrasatearra?

— Beti esaten dut arrasatearra naizela, oso harro nago. Uste dut naizen modukoa naizela, Arrasatekoa naizelako.

Orduan mondragoetarrak artaburu samarrak ginen, kanpokoekin harreman gutxi genuen, baina geure artean aberatsak eta ez hain aberatsak batera genbiltzan, fabrikako nagusiak langileekin zihoazen txikiteora lan ostean... Nire hezkuntzan eragin handia izan zuen bizimodu horrek.

Gainera, ingurukoak bai-

no hobeto garatu den herria dela uste dut.

— Faltan sentitzen duzu?

— Oso. Oraindik nire lagun taldeak segitzen du eta bat edo batek txikiteoan ere egiten du... Dena dela, nik ez dut asko ezagutzen oraingo Arrasate.

— Itzuliko zinake Mondragoera?

— Bai, noizbait itzuliko naiz. Hemen lan egiten dudan bitartean, hura nire ezkutuko txokoa izango da eta gerora ziur bueltatuko naizela.

1999/2000 ikasturtea

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (bi ikasturte)

- ▲ Proiektu Mekanikoen Garapena
- ▲ Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- ▲ Industria Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (bi ikasturte)

- ▲ Mekanizazioa

Makina Erremintaren Institutua

Makina Erremintaren Institutua
San Roke auzoa, 1
20870 - Elgoibar
Tel. 943 74 41 32
E-posta: amaia@fmh.es

Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne.

AENOR
E
Ondarritako Enpresa
I.S. 20.033/99

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ☎ 943 77 13 34

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ☎ 943 79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- Lorenzo Martin, Rafael Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Anlisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lumbalgia) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎ 943 79 59 63

PSIKOLOGIA


- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIÓ DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22



25 URTE, ZORIONAK!

Amaika-Gazte elkarteak 25 urte bete dituela eta, larunbatean bazkaria eta igandean luntxa egin zuten. Bestalde, CIM Eguna egin zen larunbatean Musakolako kiroldegian, Hizkuntza

Eskolaren 25 urteurrena ospatzeko. Goizean hasi eta gauko ordu txikiak arte, festa giroa nagusitu zen kiroldegian.



BILBON, TURISMO EGITEN

Guggenheim museoa ireki zenetik, Bilboren izena majo barreiatu da munduan zehar. Arrasate-Aretxabaletako Institutuko Erizaintzakoak eta Zeregin ikaskuntza gelako ikasleak hantxe izan ziren apirilaren 27an.



ASPALDIKO LAGUNAK

1947ean eta 1935ean jaiotakoak asteburuan bildu ziren aspaldiko kontuak gogoratzeko asmoarekin. Lehenengoek Udalpen bazkaldu zuten. 1935ekoak, berriz, Mondragon Hotelera joan ziren afltzera.

JUBAR
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99



Baina zer da hau?

Futbitoan edo zertan ari zarete, mutilak? Baloirik gabe, lurrean botata! Hori al da fixura?

Laburrak

JARDUNALDI ERABAKIGARRIA

Joan den asteko jardunaldia erabakigarria izan zen final laurdenei dagokienez. Hiru taldek lortu dute final laurdenetarako txartela dagoeneko.

A taldean izugarritzko nahastea dago. Lau taldeek lor dezakete txartela. Baina laurak gelditu daitezke kanpoan. Txantxiku Kirolak, partida irabazi arren ere, kanpoan gelditu daitezke, batez ere Lon-

txo Tabernak Sokoakoak taldearen aurka irabazten badu. Orduan, You Know, Txantxiku Kirolak eta Lontxo Tabernaren *gol averageak* erabakiko luke sailkapena. Txantxiku Kirolakek galduz gero, eta Sokoakoak Lontxori irabaziz gero, Lontxo, Sokoakoak eta Txantxiku Kirolak arteko *gol averageak* erabakiko du.

B taldean Aldibik dagoeneko lortu du txartela. Orlando Piratas eta Komando Alpar-

gaten artean jokatu da beste txartela. Hauek, gainera, elkarren aurka jokatu dute.

D taldean, bestalde, AC Surkos eta Naranja Mecanica sailkatu dira final laurdenetarako.

Azkenik, E taldean, AT Celayak aukerarik ez duen bitartean, Branka Taberna eta EPEHren arteko norgehiagoka erabakigarria izango da. Izan ere, EPEHk garaipena lortu beharra du sailkatzeko.

EPEH-RI ZIGORRA

Istilutsua izan zen, EPEH-Potroak taldeen arteko partida. Hirugarren aldiko bigarren partidaren EPEHko bi jokalarik zigorra jaso zuten. Izan ere, Patxik eta Porruk arazoak izan zituzten epailearekin. Lehenak txistua bota zion aurpegira eta, ondorioz, txapelketatik kanpo gelditu da. Bigarrenak, berriz, epailearen senitartekoak iraindu zituen eta hori dela eta, bi partidako zigorra jaso du.

ETEEO

ERDI MAILAKO IKASKETEN HEZIKETARAKO ESKAINTZA (1999-2000 IKASTURTEA)

- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA (G.G.Z.B.)
- HEZIKETA ZIKLOAK:
 - Gestio administratiboa (Erdiko Maila)
 - Idazkaritza (Goi Maila)
 - Programa Informatikoen Garapena (Goi Maila)
 - Administrazioa eta Finantzak (Goi Maila)
 - Nazioarteko Merkataritza (Goi Maila)

AURREMATRIKULARAKO EPEAK:

- **Batxilergo** eta **Erdi Mailako** Heziketa Zikloak: Ekainaren 1etik 18a arte
- **Goi Mailako** Heziketa Zikloak: Ekainaren 1etik 18a arte

Larraña, 33 • OÑATI
Tel.: 943 71 80 09 • Faxa: 943 71 81 62

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
You Know	2	2	0	0	10	2	4
Lontxo Taberna	2	1	0	1	8	5	2
Txantxiku Kirolak	2	1	0	1	10	7	2
Sokoakoak	2	0	0	2	1	15	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Aldibi	2	2	0	0	16	9	4
Orlando Piratas	2	1	0	1	11	8	2
Komando Alpagat	2	1	0	1	12	15	2
Pepelus	2	0	0	2	7	14	0

D taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	2	2	0	0	16	6	4
AC Surkos	2	2	0	0	15	9	4
KKJauri	2	0	0	2	8	14	0
Dribling	2	0	0	2	7	17	0

E taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Branka Taberna	2	1	1	0	5	2	3
Potroak	2	1	1	0	7	1	3
EPEH	2	1	0	1	8	9	2
AT Celaya	2	0	0	2	4	12	0



Emaitzak

A taldea

Txantxiku Kirolak 2 - Lontxo T. 6
You Know 7 - Sokoakoak 0

B taldea

Aldibi 5 - Orlando Piratas 4
Pepelus 4 - Komando Alpagat 7


D taldea

AC Surkos 8 - Dribling 6
Naranja Mecanica 7 - KKJauri 15

E taldea

EPEH 0 - Potroak 6
Branka Taberna 4 - AT Celaya 1

FINAL LAURDENAK



IV Nesken Futbito Txapelketa

Sailkapenean aldaketak izan dira joan den astetik. Izan ere, Izen Bakuak taldeak lidergoa galdu du, Txanpi 2 taldearen mesederako. Txanpi 2 eta Txanpi 1 taldeak berdinduta daude puntuatan, lehen eta bigarren tokian hurrenez hurren.

Dena dela, Izen Bakuak-ek

lehen tokia galdu duen arren, oso gertutik jarraitzen die lehenengo bie. Hirugarren da, zazpi punturekin.

Aste honetan Txanpi 1 eta Porrusalda Forever taldeen arteko partida interesgarria izan daiteke, lehenengo toki horietan tarte handitzen joateko.

5. jardunaldia San Viatorren

Skarlets 1 - Txanpi 2, 20
Pilpil Efektue 3 - leup! 4

Ferixalekuan

Nuze 1 - Porrusalda 8
Txanpi 1, 8 - Gora Gu 3

Oraindik jokatzeko:

@z.kom - Izen Bakuak

Maiatzak 29, larunbata

San Viator Txikin:
16:00 leup!! - Izen Bakuak
17:00 Nuze - Pil Pil Efektue
18:00 Skarlets - @z.kom

Ferixalekuan:

16:00 Txanpi 1 - Porrusalda Forever
17:00 Txanpi 2 - Gora Gu

Sailkapena

1- Txanpi 2	8
2- Txanpi 1	8
3- Porrusalda Forever	7
4- Izen Bakuak	7
5- leup!!	4
6- Gora Gu	4
7- Pilpil Efektua	2
8- Skarlets	1
9- Nuze	1
10- @z.kom	0

ARRASATE KIROLAK

Kontxexino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak

3 aldia

3. jardunaldia

Maiatzak 29, larunbata

Zaldibar

09:50 Dribling - KKJauri
11:00 Orlando Piratas - Kom. Alpagat
12:00 Txantxiku Kirolak - You Know
13:00 AC Surkos - Naranja Mecanica
14:00 Aldibi - Pepelus
15:00 Potroak - AT Celaya
16:00 Lontxo Taberna - Sokoakoak
17:00 EPEH - Branka Taberna

Igandean Laredoko maratoian izango da

CESAR DIEZ

“Laredokoa egin ditudan hamasei maratoietatik txarrena izan da”

— **Lehen ere izan zara Laredoko maratoian?**

— Bai, 1989an. Orduan Espaniako txapelketa izan zen. Orduko arantza kentzeko gogoia daukat. Oso gaizki pasatu nuen, nahiz eta amaitu egin nuen. Egin ditudan hamasei maratoietatik huraxe izan zen txarrena.

— **Nola prestatu zara maratoian aritzeko?**

— Lau hilabete igaro ditut entrenatzen. 1.600-1.700 km egingo nituen denbora horretan (astero 100 km). Oso negu latza izan dugu eta horrek ere gogorragoa izatea eragin du. Maratoien prestaketa oso gogorra da, gainera bakarrik zaude, eta zorte eta osasuna izan behar da... eta ulertzen zaituen familia.

— **Zein izan da zuren azken maratoia?**

— Iaz New Yorken izan nintzen. Harrezkero ezin izan dut korrika egin. Zauriturik egon naiz, baina Santi Perez, nire entrenatzaileari esker, lortu du errekupeatzea.

— **Gastu ekonomikoak zure kontura doaz?**

— Hainbat babesle izan ditut jantziak lortzeko, baina babesleak ere neuk lortu behar izaten ditut. Horretaz gain, bidaiaren eta egonaldia gastuak daude eta horrek ere, nire kontura.

— **Ez litzateke posible izango beterranoen elkarte bat eratzea, gauzak errazteko?**

— Ez dago antolakuntzarik. Gainera, beterrano asko gara eta Arrasate Atletiko Taldearekin batera posible izango litzateke, baina bakoitza bere alde-tik goaz.

— **Zure errekorra gaintuko duzu?**

— Ez, ez nago sasoirik onenean. Bi ordu eta 39 minutik jaistea zaila izango da. 2'45''-2'50'' tartean geldituz gero, gustura.




TXIRRINDULARITZA Del Rio hirugarren



Born Jay taldeko Jon del Rio txirrindularia hirugarren izan zen Bazko maiatzeko lasterketan, Bergaran. Del Rio bigarren toki jokatu zuen esprintean. Azkenean, ordea, hirugarren izan zen. Garaipena, berriz, Baqué taldeko Iker Camaño eskuratu zuen. Igandean Eran-dion arituko dira, Txumi klasi-sikoan.

Fagor taldeko gazte mailakoek Anoetan dute hitzordua aste honetan. Oiartzabal oroitzapenezkoa jokatu dute larunbatean. Arrasate Kirolak taldeko infantilak ere bihar abiatuko dira Elgoibarrera.

ESKUBALOA Denboraldi bikaina



Haur eta gazte mailako bi taldeek amaitu dute dagoeneko 98-99 denboraldia. Biek galdu egin zituzten azken partidak. Haur mailakoak 23-11, Urolaren aurka; gazteek, berriz, 17-15, Aloña Mendiren aurkako derbian. Dena dela, denboraldi bikaina egin dute bi taldeek.

Gazte mailakoak bigarren gelditu dira sailkapenean. Datorren urtean jokalaria asko pasatuko dira talde nagusira. Gipuzkoako kopan ordea puntu bakarra lortu dute.

Haurrak ere ondo aritu dira ligan. Kopan, berriz, 3. sailkatu dira, bigarrenarekin puntuka berdinduta. Hiru norgehiagoka bakarrik galdu dituzte. Aurten haur mailako taldea osatu duten jokalaria gazte mailan arituko dira datorren denboraldian. Beraz, herriko eskubaloi taldeak erabat berriztuta arituko dira hurrengo ligan.

FUTBOLA Ezin Errealarekin



Infantil mailako Arrasateko Futbol Taldeak galdu egin zuen joan den larunbatean. Errealaren aurka jokatu zuen eta sekulako gol zaparrada jaso zuen: 1 eta 8, partidaren amaieran. Denboraldiko azken norgehiagoka zen, gainera. Sailkapenean 12. tokian gelditu dira.

Preferente mailako Mondrari dagokionez, badirudi Letonaren mutilek denboraldia duintasunez amaitzea erabaki dutela. Joan den asteburuan irabazi egin zieten zestoarrei, han, 0 eta 2. Asteburu honetan Trintxerperen bisita izango dute Atxabalpen, larunbatean 16:30ean. Trintxerperkoak garaipena nahiko dute, sailkapeneko laugarrenak izanda, igoera aldira pasatu nahiko dute eta.

SASKIBALOA Akabo denboraldia



Junior mailako Arrasate Saskibaloi Taldeak amaitu du dagoeneko denboraldia. Etxadi Arguisan taldearen aurka 28 puntuz galdu zuen. Sailkapenean 11. gelditu dira. Hori dela eta, junior mailako B taldean arituko dira datorren denboraldian ere. Izan ere, lehenengo hamarrak sailkatzen dira lehen taldean.

Haur mailakoek ere galdu egin zuten, Aldapetaren aurka, denboraldiko azken partidari. Seniorrek, lagun arteko norgehiagoka jokatu zuten asteazkenean, Askatuak-en aurka. Irabazten hasi ziren arren, azkenean galdu egin zuten.

Azken jai arrakastatsua



Gustura ibili ziren haurrak Arrasateko Kirol Proiektuaren jaietan.

Herriko zazpi ikastetxeetako eta Aramaioko herri eskolako kirolari gazteek Arrasateko Kirol Proiektuko azken jai ospatu zuten joan den larunbatean, Iturripeko kiroldegian. Bizikletan egindako irteera batekin hasi zuten jai eguna, Aramaiora joanez. Handik bueltan, sailkapenean lehen tokietan gelditu diren taldeek

garaikur bana eskuratu zuten.

Bakarkakoan domina bana eman zitzaizen infantil mailako kirolari guztiei.

Gipuzkoako txapelketan, bestalde, aurrera darraite SFX-ko hiru taldek: nesken eskubaloia talde bat eta mutilen eskubaloia eta futboleko talde bana. Beste lau taldeak kalean daude dagoeneko.

TALDE SARITUAK

AURREKIROLA

- 1- Erguin B
- 2- San Viator B
- 3- SFX F

MULTIKIROLA

- Neskek:**
- 1- SFX B
 - 2- San Viator B
 - 3- San Viator A
- Mutilak:**
- 1- SFX E
 - 2- SFX D
 - 3- Aramaio

INFANTILAK

Eskubaloia

SFX

Saskibaloian

Neskek:

San Viator A

Mutilak:

- 1- San Viator A
- 2- San Viator B

Futbolean

Neskek:

- 1- La Merced
- 2- San Viator
- 3- SFX A
- 4- SFX B

Mutilak:

- 1- Institutua
- 2- SFX

Zazpinako Errugbia

Ekainaren 5ean Zazpinako Errugbiaren Nazioarteko Lehen Topaketa egingo da Arrasaten, Arrasate Errugbi Taldeak antolatutik. Hamar bat taldek hartuko du parte topaketa hauetan. Partidak Atxabalpeko futbol zelaian jokatuko dira.

Topaketarekin batera, Gargardoaren Lehen Festa Handia ere antolatuta dute. Ekainaren 4an hasi eta goizeko 07:00ak arte.

Bruselara jokatzen

Arrasate Errugbi Taldeko beterranoak Bruselara doaz ostiralean Artxibal Errugbi Taldearen 30. urtemuga dela eta. Frantzia, Ingalaterra, Alemania, Espainia eta Euskal Herriko hamar talde elkartuko dira txapelketa hartan. Tartean golfean eta arraunean ere egingo dute. Noski, Bordeleko ardoa dastatzeko aukera alboratu gabe. Arrasatek hamasei jokalariri joango dira.

Omenaldia Barkerori



Jose Jabier Barkerori omenaldia egin zion UDA futbol taldeak joan den larunbatean. Oiartzunen aurka jokatu behar zuten atxabaldarrek eta hasi aurretik talde biek txalo artean hartu zuten munduko txapel-

duna, bi ilaratan ezarritako jokalarien artean pasatzen zen bitartean. Berak egin zuten ohorezko sakea.

Horrez gain, UDAko lehendakariak oroigarri bat ezarri zion 20 urte azpiko txapelkun atxabaldarrari.

Haurrak hirugarren sailkatu dira



Lasai asko gelditu ziren haur mailako jokalariek liga amaituta.


Oxel Etxebarria, Iker Elortza, Aitor Gallastegi, Unai Aranburu, Mikel Gonzalez, Josu Soriano, Odei Uranga, Brian de Inda, Urtzi Belastegi, Daniel Hernandez, Ander Sopo, Urki Anzizar, Danel Markaide eta Xabier Balanzategi dira haur mailako errugbi taldeko jokalariek. Guztiak Gipuzkoako ligan hirugarren sailkatu dira. Joan den asteburuan Hernanin

aritu zen Richi Fernandezek entrenatzen duen taldea. Bi norgehiagoka jokatu zituen. Hernaniren aurka 20 eta 0 galdu zuen eta Ordiziaren aurka, berriz, 12 eta 5.

Euskal Herriko ligan ere aritu ziren errugbilari hauek, baina sailkapeneko hirugarren tokia ezin eskuratu, ez baitzuten azken partida jokatzerik izan.



Alaitz eta Maider trikitilariak.



Parrokoak ere kontu ugari izango du esateko.

Alaitz eta Maider ATBn

Aitziber Langaran eta Unai Iparagirrek aurkezten duten Kaleidoskopioa saioak bere azken programa izango du datorren ostegunean. Hori ospatzeko, zer hobeto gaur egun Euskal Herrian ditugun trikitilari gazte famatuenetarikoa ekartzea baino, Alaitz eta Maider, hain zuzen ere?

Bi neska gazte hauek hautsak harrotu zituzten beren

lehen diskoarekin eta orain-tsu plazaratu duten bigarren diskoak ere emango du zeresanik. Honetaz eta aurki Japoniara egingo duten bidaiaz ere arituko dira berbetan Kaleidoskopioan, zuzen-zuzenean.

Honetaz gain, Kaleidoskopioa nola egiten duten erakutsiko digute Unai, Aitziberrek eta Betirtzek. Azken

programa izanik, ezin duzu galdu. Beraz, piztu ATB ostegun gauean.

ARRASATEKO PARROKOA AURREZ AURREN

Aurrez Aurre saioak ere agur esango dio aste honetan denboraldi honi. Azken gonbidatua Jose Mari Astigarraga parrokoa izango da. Joxe Marik bere bizitzaz hitz egi-

teaz gain, San Joan Bataiatzailea elizan egindako zaharberritze lanez ere hitz egingo du.

IÑAKI BARRENA MUNDUARI BUELTAKA

Gari Kortazarren saioan Iñaki Barrena izango da. Iñaki pasa den udan Thailandian izan zen eta hango bizipenak kontatuko dizkigu.

■ ATBren programazioa


LARUNBATA, 29	ASTELEHENA, 31	ASTEARTEA, 1	ASTEAZKENA, 2	OSTEGUNA, 3	OSTIRALA, 4
13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Jolasplast, Musiklasik, Aurrez Aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Astebete errepika. 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepasoa.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Mondrasport (errepika). 19:20 Jolasplast. M. Lizarralderekin. 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Munduari bueltaka. Gari Kortazarrekin.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Munduari bueltaka (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Aurrez Aurre. Aste honetako gonbidatua Jose Mari Astigarraga, parrokoa.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Aurrez aurre (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Kaleidoskopioa. Azken programa. 22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkezten duen musika saioa.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Kaleidoskopioa (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Astebete. Astelehenera zehar gertatu diren albiste garrantzitsuenen errepasoa, Maider Osarekin. 22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkezturiko musika saioa.



Iñaki Barrena.

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RKAUZ

FAGOR

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABAETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABAETA

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bergarako erdi-gunean, 70 m². Tel.: 943 76 15 40.

• Etxea salgai Nafarroan, Logroño-tik 18 kolimetrora. 2.500.000 pta inguru. Tel.: 943 79 49 42.

3. Errentan emateko

• Apartamentua eta bungalowo alokagai Torrevejan eta Santa Polan, hondartza ondoan. Tel.: 943 79 32 54.

• Apartamentua alokagai Benidormen. Tel.: 943 79 54 48.

• Sei pertsonarentzako apartamentua alokagai Laredon, igogailu eta guzti. Hamabostaldia 80.000 pta. Tel.: 943 76 44 34.

• Apartamentua alokagai Peñiskolan, uztailko lehen hamabostaldian eta abuztuko bigarrenean. Hondartzatik eta kirol esparrutik oso gertu.

4. Errentan hartzeko

• Gela bat alokatu nahi dut etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 945 39 37 50 gauz, eta 943 79 79 88 goizez. Eder.

• Lau ikaslek etxebizitza bat alokatuko lukete. Tel.: 630 37 61 50 (Andoni).

• Etxebizitza osatzeko lagun euskaldun bat behar da. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 79 93 03.

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. 80.000 pta ordaintzeko prest nago, egoera onean baldin badago behintzat. Tel.: 610 46 78 92.

• Bi ikaslek etxebizitza alokatuko genuke hurrengo ikasturterako. Prest geundeke beste batzuekin ere etxebizitza osatzeko. Tel.: 617 26 32 41 (gauz) edo 943 67 05 48 (asteburuetan). Josune.

• Lau neskek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 64 28 37.

• 4 edo 5 logelako etxebizitza alokatuko genuke. Tel.: 943 79 84 40.

5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Arrasate erdialdean. 943 79 59 60. Ramon.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

GARAJEAK

7. Saldu

• 15 m²ko garaje itxia salgai Larrea kalean. Tel.: 943 79 14 77.

• Garaje itxia salgai Iturripe eta Eskola Politeknikotik gertu. 20 m². Tel.: 943 79 34 70.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzen da Musakola aldean. Tel.: 943 77 16 03.

• San Andres auzoan garaje lekuak salgai. Tel.: 608 77 07 86.

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• 60 m² zabal eta 4 metro garai den lokala salgai edo alokagai. Erdialdean, argitsua. Gaur egun ile apaindegi eta

edertze areto bezala erabiltzen da. Bitarte 17, eskuina. Tel.: 943 77 12 70.

14. Errentan emateko

• Bi toki alokatzeko, 120 eta 130 m²koak, batera edo bakarka, San Andreseko industria pabilioietan. Tel.: 608 77 07 86.

• Goxoki denda bat alokatzen da Kontzeiño kalean. Tel.: 943 77 10 97.. 21:00etik aurrera deitu.

15. Errentan hartzeko

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

LANA

17. Eskaintza

• Neska euskalduna etxeko lanak egin, umeak zaindu eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo egun osoz. Interesatuak deitu: 943 79 45 16. Bego.

• Esperientziadun emakumeak umeak zainduko lituzke, goizez eta arratsaldez. Tel.: 943 79 97 11. Conchita.

• Zazpi urteko esperientzia duen jate-txe zerbitzaria lana egiteko prest. Tel.: 943 77 08 13. Carmen.

• Taberna lan egingo nuke. Tel.: 943 76 46 07.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Emakume euskalduna prest umeak zaindu, etxekolanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Emakume arduratsua umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 54 48.

18. Eskaerak

• Ile apaindegi laguntzaile bat behar da, asteburuetarako. Tel.: 943 77 09 44.

• Emakume bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei telefono hauetara: 943 79 66 96 edo 943 79 94 58 (19:00etatik 20:00etara)

• Sukalde laguntzailea edo sukaldean esperientzia duen pertsona behar da, jate-txe batean lan egiteko. Tel.: 943 71 64 70.

• Zerbitzaria behar da taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 943 79 61 64 telefonora.

• Esperientzia duen ile apaintzailea behar dugu. Tel.: 943 77 16 31.

• Zerbitzaria behar da Arrasateko taberna batean. Tel.: 943 79 22 15.

• Neska edo mutila behar da aste-buru gauetan jangelan zerbitzeko. Tel.: 943 79 68 57.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Biologian lizentziadunak kimika eta matematikako eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 79 16 39. Amaia.

• Lehen eta bigarren heziketarako eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 83 46.

• Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 943 79 01 06.

21. Eskaerak

• Eskola partikularrak emango lukeen neska bat behar da. DBH 3. mailan. Tel.: 943 79 62 08.

• ESOko 1. mailako eskola partikularrak emateko pertsona bat behar

da. Tel.: 943 79 60 01.

- Mekanografiako eskola partikularak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 25 10. Igor.

MOTORRA

23. Saldu

- Peugeot 309, GTI (SS-Z) saltzen dut. Tel.: 943 79 74 65 edo 619 812 090, prezio onean.

- Opel Calibra 2-0i 559203AL salgai. Tel.: 943 71 41 13.

- Motorra salgai. Suzuki GSX 750R. Tel.: 943 79 70 96. Felix.

- Super 5 GTSa salgai, estra eta gutxi. Tel.: 649 06 94 71.

- Renault Espace 2.1 TD salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 26 16 / 943 79 68 31 (Urtzi).

- Ford Escort RS turbo salgai. Matrikula SS-AG. Tel.: 943 72 59 90. Gauez deitu.

- Honda Shadow 1100 motorra salgai. Oso egoera onean, estra askorekin. Osagai orijinalak oparitan. 1.180.000 pta. Tel.: 943 00 81 15 (Jabi).

- Volkswagen Golf GTI, SS-AF matrikula, salgai. Tel.: 943 77 04 87 / 670 40 41 20.

- Opel Vectra 2. 0i GT 16V saltzen dut (93ko modeloa), SS-AN. Tel.: 943 79 63 67.

- Audi 90 2 2 Quatro salgai, SS-AH matrikuladuna. Oso egoera onean, estra guztiekin. Tel.: 608 77 18 57.

- Karabana salgai, Roller 390. Tel.: 943 77 05 22. Iluntzean deitu.

DENETARIK

26. Saldu

- Karabanako ispilu pare bat salgai. Ia berriak daude eta 5.000 pta balio dute. Tel.: 943 78 12 73. Jaione.

- Pentax Z-1 argazki kamera, 28-80 objektiboduna, eta FTZ-400 flasha saltzen ditut. Oso gutxitan erabilia. Tel.: 943 79 21 35.

- Euskal artzai zakurra, arra, salgai. Tel.: 943 78 34 79.

- Tamaina handiko Conver-13 bat salgai, 8 bat urtekoa, ongi mantendua eta prezio onean. Tel.: 943 79 22 28.

- Yamaha-Clavinova (CLP 360) pianoa salgai. Erabiltzeko dago. Tel.: 943 75 11 70.

29. Eman

- Lau katakume oparitzeko. Nahi duenak, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

30. Hartu

- Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu astelehenetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

31. Galdu

- Zigorrola eta San Andres artean urrezko belarritako bat galdu nuen (harri urdin eta zuri batekin) Maiatzaren Lehenean. Tel.: 943 79 65 45.

- Maiatzaren 2an, igandean, esku-turreko bat galdu nuen San Andre-setik Altamirara bidean. Topatu duenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 29 24 telefonora.

- Graduatutako betaurrekoak galdu dira Musakola auzoan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez, 943

79 53 041 telefonora. Sarituko da.

- Neskatila bati urrezko eraztuna galdu zaio. Eraztunak 2 harri txiki ditu eta esparadrapoa darama. Topatu baduzu, deitu mesedez 943 79 84 87 telefonora iluntze aldera.

- Betaurreko graduatuak galdu dira Uribarrin. Tel.: 943 79 95 24. Karmen.

- Behealdeko ordezeko haginak aurkitu ditut Zaldibarko 7. zenbakian. Tel.: 943 77 11 68.

- Umearen bota zuria galdu nuen joan den ostegunean, hilaren 20an. Munar, Arrasate pasealekua eta erdialdea bitartean. Tel.: 943 79 69 68.


32. Aurkitu

- Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

- Biolin jole eta zehar flauta jole bat behar dugu musika talde batean jotzeko. Tel.: 943 79 95 76. Esteban.



WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

**PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...**



L 947an Gipuzkoa Etorbideko 40 eta 42 zenbakiak dituzten etxeetako giltzak banatu ziren, Musakolan. *Cerrajerako Etxeak* izenarekin egin ziren ezagun. Garai haietan, Zigorrolak sekulako hazkundera izan zuen. Lehenengo etxeak, adibidez,

1923. urtean eraiki ziren eta San Isidro eliza hogeita bi urte geroago.

Argazkiaren aurrealdean, txapela beltzarekin, Camilo Basterretxea dago, Cerrajerako zuzendari orokorra. Jose Luis Iñarra parrokoa ere hortxe dago, ezinbesteko bedein-kapena emateko prest. Haren

ondoan Bonifacio Uriarte eta atzealdean Ignacio Chacon ingeniaria. Julio Otadui alkate ohia eta Zulueta bere aholkularia ere agertzen dira.

Hauekin batera, etxebizitza bat hartu behar zuten guztiak daude, denak Cerrajerako langileak eta, noski, ezin falta auzoko baserritarrak ere.

Enborrak Musakolako zerrategian zeuden, gaur egun Aldibi auto saltzailea dagoen tokian.

Argazkia eta berriemateak:
Felix Ajuria, Simon Arregi
eta Benito Barandiaran.



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



haize berriak

bozkatu
EH
Euskal Herritarrok

EUSKAL HERRITARROK



Arrasate

ALDIBI



udarako aukera aparta



Primera SLX

- 4 edo 5 ate
- Lagunduriko direkzioa
- ABS
- Aire girotua
- Airbag bikoitza
- Ispilu elektrikoak
- Llantak
- Laino argiak

Prever planarekin 1.6 16v 2.590.000 pta

Prever planarekin 2.0i 16v 3.065.000 pta

Prever planarekin 2.0 TD 2.850.000 pta



Almera Lx

- 3, 4, 5 ate
- 87cv
- Lagunduriko direkzioa
- Airbag
- Ispilu elektrikoak
- Lapurren kontrako sistema

Prever planarekin 1.4 16v 3 ate 1.675.000 pta

Prever planarekin 1.4 16v 4 ate 1.725.000 pta

Prever planarekin 1.4 16v 5 ate 1.675.000 pta

5 urteko bermea, aukeran



ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA, 1 - TEL.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



Gidatu eta gozatu